

laburrean

KIRGIZISTAN

■ Akaievek berriro hauta dezaten lortu du Lehendakartzarako hauteskundeetan

ASKAR AKAIEV Kirgizistango lehendakariak berriro hauta dezaten lortu du hauteskundeetan, atzo eman ziren behin-behineko datuen arabera. Igandean egin ziren hauteskundeak eta partehartze handia izan zen, % 81,8koa; boto zenbaketa amaitu gabe zegoen arren, argi dago Akaievek ez duela bigarren itzulia beharko lehendakari izateko, botoen % 75ekin lehenengo lekuan baitzegoen. Parlamentuak ukatu egin zion bere agintaldia erreferendum bidez luzatzeko aukera, baina hauteskundeetan irabazi egin du. X

ALEMANIA

■ Hiru haur hil dira aterbetxe bateko sutean

KOSOVOKO familia albaniar bateko hiru haur hil ziren herenegun eta euren ama oso larri zauritu, Alemaniako errefuxiatuentzako aterbetxe batean izandako sutean. Igandean goizean goiz gertatu zen sutea Bergkam hirian, Dortmundetik gertu, eta beste bederatzi lagun ere zauritu ziren, horien artean lau haur. Poliziak esan zuenez, ez zuten sutea nahita egin zelako frogarik aurkitu, eta ziurrenik hankasartze humanoren bategen eragin zuten. X

HAITI

■ Rene Preval izendatu dute lehendakari berri

RENE PREVAL Haitiko Gobernuaren hautagaiak irabazi zituen joan zen igandean zortzi egin ziren Lehendakartzarako hauteskundeak, larunbatean Hauteskunde Batzorde Zentralak iragarri zuten. Prevalek Jean Bertrand Aristide ordezkatuko du lehendakari karguan. Hauteskundeetan oso partehartze txikia izan zen, % 20 ingurukoa, baina baliokotzat jo zituzten, bai bertan bai nazioartean. Jende gehienak Aristidek boterean jarraitzea nahi zuelako izan zen eskasa partehartzea. Aristidek, ordea, ezin zuen hori egin, Konstituzioaren arabera lehendakaria ezin baita berriro hauta dezaten aurkeztu. X

TANSU ÇILLER LEHEN MINISTROAK DIMISIOA AURKEZTU DIO DEMERIEL LEHENDAKARIARI

# Alderdi islamistak irabazi ditu Turkiako hauteskundeak

Garaipena lortu arren, Necmettin Erbakan-en Ongizatearen Alderdiak (RP islamistak) ezin izango du gobernatu, gehiengo absolututik urrun geratu baita eta eskuineko eta zentroko alderdiak koalizio handi bat osatzeko proiektuan ari baitira.

Agentziak / Ankara



Necmettin Erbakan lider islamista garaipenaren zeinua egiten prentsaurrekoan.

BERHAN OZBILICI / AP

Parlamentu berritik irten daitekeen gauza bakarra DYP eta ANAPen arteko koalizioa da eta gu oposizioan egongo gara, inork ezin baitu RPrekin batzeko erantzukizuna hartu, alderdi hori Errepublikan laikoaren aurka baitago», esan zuen Ecevitek. Gainera, indar armatuak ere kontuan hartu beharra dago. Armadak 1960tik 1980ra arte hiru

aldiz eman du estatu kolpea. Joan zen larunbatean, hauteskunde bezperan Ismail Hakki Karadayi indar armatuak buruzagi nagusiak ohartarazi zuen Armadak Errepublikaren laizismoaren garante izaten jarraitzen duela, eta islamisten garaipenak ez duela Turkia estatu islamiko bihurtuko. Islamisten garaipena ziurta-

tuta zegoela Çillerrek dimisioa aurkeztu zuen atzo, baina badi-rudi Suleyman Demirel lehendakariak (Çillerren alderdi berekoa) karguan jarraitzeko eskatuko diola hurrengo gobernu osatu arte. Çiller bera da hurrengo gobernu buruzagitzarako hautagai nagusia, DYP eta ANAPen arteko koalizioa osatzen baldin bada. X

## Iforreko lehen biktima Bosnian

Ustez bere buruaz beste egin duen NATOko soldadu britainiar bat aurkitu dute Sarajevon

Agentziak / Sarajevo



Serbiarren esku egon den gerra preso bosniar bat senitarteko batekin besarkatuta, aske geratu ondoren.

PASCAL GUYOT / EPA

Toren banderapean Bosniara joan diren 60.000 soldaduentzako arriskurik handienak. Azken egun hauetan ehundaka mina indargabetu dituzte NA-

Toko indarrek, Bosniako Armadaren eta indar serbiarren laguntza. Baina ez dira minak NATOko soldaduen arrisku bakkarra. Frankotiratzailak ere ugari

dira, baina NATOko agintari militarrek esan zuten, datozen egunotan frankotiratzailen arriskua asko gutxituko da. NATOko indarrak dagoeneko Sarajevon indar serbiarrek kontrolatzen dituzten auzoetan ere sartu dira. Bestalde, Eguberri egunarekin bat egirik, Bosniako Armadak eta indar serbiarrek gerra presoak trukatu zituzten atzo. Guztira 245 gerra preso trukatu zituzten, 131 Bosniako Armadako soldaduak, eta 114 gerrilari serbiar. X

<b>EUSKO JAURLARITZA</b>		<b>GOBIERNO VASCO</b>
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA		DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION
1995/96 IRAKASKUNTZA ERTAINETARAKO TOKI-ALDATZE LEHIAKETA		
Eskabideak egiteko azken eguna abenduaren 29an, bera barne izango da.		
Bilbon, 1995eko Abenduak 22.		
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza		